

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
JARDUEREN MEMORIA 2010

AURKIBIDEA

	Or.
1. Aurkezpena	3
2. Zer da Behatokia?	5
3. Kideak.....	7
4. Araudiaren garapena.....	13
5. 2009-2012ko Lan Planaren laburpena 2010eko aplikazioari dagokionez	15
6. BGIBren jarduerak 2010ean	19
a. Osoko Bilerak.....	19
i. 2010eko martxoaren 5eko bilera	
ii. 2010eko azaroaren 26ko bilera	
b. Adierazleen Lan Taldea	20
i. 2010eko martxoaren 23ko bilera	
ii. 2010eko azaroaren 26ko bilera	
iii. 2010eko urriaren 27ko bilera	
c. Kanpo-harremanak.....	24
d. Webgunea.....	26
e. Udal Kontaktu Sarea	30
f. Informazioa kudeatzeko sistema integrala	32
g. Baliabideen mapa	34
h. Baliabideen Atlasa	36
i. Zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan	38
j. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa.....	41
k. Udalerrietako Informazio Orria.....	43
l. <i>Online</i> dokumentu-kudeatzailea	44
m. OVGB/BGIB informazio-buletina	46
n. Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010....	49

1. Aurkezpena



Memoria honetan

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak (BGIB) 2010. urtean egin dituen jarduerak zehaztuko ditugu; jarduera horietan, sortu zenetik organoari dagozkion zereginak biltzen dira, betiere helburuak egiaz betetzearen: emakumeen kontrako indarkeria-egoeren errealitatearen berri izatea Lurraldean eta eremu horretan eragina duten zerbitzu eta prestazioen eskaintzan hobetzeko proposamenak eta gomendioak egitea.

Aurten ere, BGIBk erakunde publikoei hainbat datu eskatu dizkie, hala nola indarkeria-arazoak dituzten zenbat emakumek erabili dituzten zerbitzu publikoak, emakume horien ezaugarriak edo zerbitzu horiek zer laguntza mota eskaintzen duten. Datu horiek bildu eta aztertu ostean, jendearentzat eskuragarri dauden honako dokumentu hauek osatu dira: “Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2009)” eta “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatuak eta Familia-elkarguneak. Bizkaiko Lurralde Historikoa (2010)”. Dokumentuak egiteaz gain, jarduera esanguratsuak dira, halaber, informazioa biltzen duten tresnak —Baliabideen Mapa, Baliabideen Atlas, Dokumentu-kudeatzailea— eguneratzea, informazio- eta dokumentazio-eskaerak ebaztea eta *BGIB Buletina* aldizka argitaratzea.

Aurten ere, Behatokiaren Informatzaileen Sarea osatzen duten erakundeekin egin dugun elkarrizketa-lana goraipatu behar dugu, baita Lurraldeko udalerri eta mankomunitateetako berdintasun-arloetako eta gizarte-zerbitzuetako profesionalekin ere. Horien guztien laguntzari esker jakin ahal izan dugu indarkeriaren biktima diren emakumeek nola baliatzen dituzten horretarako prestatutako zerbitzuak, horiek baitira herritarrengandik gertuen dauden

erakundeak. Behatokiaren lan-planaren helburuetako bat informazioa ematen duten figura horiekiko harremana indartzea izan da 2010. urtean; horretarako, erakunde horiekiko topaguneak —Adierazleen Lan Taldea— zabaldu ditugu edo Buletinean atal bat prestatu dugu haientzat.

Memoria honetan, halaber, *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010* dokumentua osatu eta argitaratu dela aipatuko dugu. Dokumentu horren bidez, sorrerako bi helburuei dagokienez, Behatokiaren zereginetako bat betetzen da: Beste erakundeekin parte hartu eta harremanetan egon eta beste administrazioetako jardunbide egokien berri izan.

2010eko eskuliburuarekin 2006. urtean argitaratu zen *Manual de prácticas, iniciativas y experiencias contra la violencia de género (Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua)* eskuliburuaren jarraipena egin da eta, izenburuan ongi adierazten denez, bertsio horretan bi interesgune nagusi daude: prebentzioa eta arreta. Bi arlo horien bidez, hezkuntzarekin, sentsibilizazioarekin, komunikabideak eta publizitatearekin, arreta-zerbitzuekin, emakumeen aurkako indarkeriaren eremuko profesionalen prestakuntzarekin eta erakunde arteko koordinazioarekin loturiko alderdiak landu dira.

Lerro hauen bitartez gure esker ona helarazi nahi diegu hasierako uneetan hautatutako ekimenei buruzko gure informazio-eskaerari erantzun dioten erakunde publiko, elkarte eta erakunde pribatuei; izan ere, horien laguntza ezinbestekoa izan da Eskuliburu hori osatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria-egoeren aurrean prebentzioko eta arretako jardunbide eta esperientzia interesgarriei buruzko jakintza ezagutarazteko baliagarri izan dadin nahi dugu, neurri eraginkorrak abiarazteko adibidetzat edo inspirazio-iturritzat.

Juan M.^a Aburto Rike
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko presidentea
Gizartekintzako foru diputatua

2. Zer da Behatokia?

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia organo aholku-emailea da, martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuak sortua, dekretu horretan jasotzen den osaketa, gerora, azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuak eta, berriki, otsailaren 2ko 5/2010 Foru Dekretuak aldatu du.

Behatokiak xedetzat du Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumearen aurkako indarkeria-egoeren eta arlo horretan abiarazi diren erakunde-politiken eraginaren —politika horien garapenari, ezarketari eta eragindako biztanleriarengan duen eraginari dagokionez— jarraipena eta zainketa egin ahal izango duen informazio-sistema eratzea, eskuragarri dauden baliabideak behar errealetera egokitzeko.

Behatokiak bi helburu nagusi hauek ditu:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurka gertatzen diren indarkeria-egoeren errealitatea eta bilakaera zein den jakitea.
2. Erakunde publikoek genero-indarkeriaren arloan eskaintzen dituzten zerbitzuei eta prestazioei buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak egitea.

Helburu horiekin bat etorritik, Behatokiari esleitutako eginkizunak honako hauek dira:

1. Bizkaiko emakumeen aurkako genero-indarkeriako egoerei buruzko datuak jasotzeko aplikazio informatikoa diseinatzea, martxan jartzea eta mantentzea.
2. Genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko esparruetan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta haren analisisa egiteko organo iraunkorra izatea.
3. Zerbitzuek emakumearen aurkako indarkeriaren arloan erabiltzen dituzten informazio-sistemak eta adierazleak hobetzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea.
4. Antzeko beste erakunde batzuekin harremanak izatea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazio batzuetan abiarazitako eta planteatutako esperientziak eta erreformak ezagutzea.
5. Genero-indarkeriaren hedadurari eta bilakaerari buruzko diagnosi-txosten teknikoak eta azterketak egin daitezen proposatzea.

6. Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasuna aztertzea, beren ondorio eta eraginak ikertuz eta jardunbide egokien adibideak aztertuz.
7. Bizkaiko genero-indarkeriaren eremuan eragina duten baliabideen eskaintzak hobetzea bultzatzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea, eta horiek dagozkien erakundeetara iritsaraztea.
8. Genero-indarkeriaren eremuan ikertzen duten taldeen azterketa- eta analisi-lanak errazteko truke- eta komunikazio-foro bat eratzea.
9. Behatokiak urtean zehar garatzen dituen jardueren buruzko urteko txostena igortzea, eta horri buruz jakinaraztea Bizkaiko Batzar Nagusietan.
10. Bere antolaketa- eta funtzionamendu-araudia egitea.

3. Kideak

Behatokiak administrazioaren hiru mailetako ordezkari instituzionalak ditu (hau da, EAEko ordezkariak, Bizkaiko Foru Aldundikoak eta tokikoak), baita emakumeen elkarteetako ordezkariak ere. Horien guztien helburua da emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari era koordinatuan erantzutea, beren esku-hartze esparruetan jardunez.

2010. urtean, hainbat aldaketa izan dira eta eragina izan dute Behatokiko osoko bileraren osaeran, bai partaide diren erakundeen egitura organikoa aldatu delako, bai ordezkari berriak izendatu dituztelako. Hori horrela izanik, ekitaldiaren amaieran, Behatokiaren osoko bilera honako hauek osatzen dute:

LEHENDAKARITZA

Gizartekintzako foru diputatua:

Juan M.^a Aburto Rike jauna

LEHENDAKARIODETZA

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia (Gizartekintza Saila, BFA):

Jon Etxebarria Orue jauna, Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia

Ordezkoa: Jon Andoni Rekagorri Barrenetxea jauna, Plangintza, Azterlan eta Ikuskapeneko zuzendari nagusia

IDAZKARITZA

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia (Gizartekintza Saila, BFA):

Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua

Ordezkoa: Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Emakume eta Familia Zerbitzuaren Administrazio Nagusiko teknikaria

MAHAIKIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundia

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila:

María Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakume eta Familia Zerbitzuko burua

Ordezkoa: Elena Iturrizaga Larrabeiti andrea, Plangintza eta Ikerlanetako Zerbitzuko burua

Gizartekintza Sailari dagokio, foru diputatuaren zuzendaritzapean, indarreko antolamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari onesten dizkion eskumenen jarduna, gizarte-zerbitzuen arloan, bai eskumenen eratzikipen juridiko positibo zuzenaren bitartez, bai zeharka beste administrazio publiko batzuei lehenago atxikiak zitzaizkien eginkizun eta zerbitzuen intsuldaketei buruzko xedapenetatikoaren bitartez.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila:

Anselmo Ardanza Sustatxa jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea

Ordezkoa: Miren Begoñe López-Uribarri Goicolea andrea, Langileen Zerbitzu Juridikoko burua

Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailak du eskumena udal-harremanen arloan eta herri-administrazioko gaietan Bizkaiko Lurralde Historikoan Foru Administrazioari aitortutako eskumenak betetzeko. Herri-administrazioari dagokionez, sail honi zeregin hauek dagozkio: foru-langile publikoen erregimen juridikoa; foru-sail guztien interesekoak diren zerbitzuak eta jarduerak; barne-komunikazioa; erakunde-koordinazioa; eta Foru Aldundiaren zeinahi gai, baldin eta berariaz beste sailen bati esleitu ez bazaio.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Saila:

Francisco Aguiriano Miranda jauna, Informazio Egituren Ataleko burua

Ordezkoa: Juan José Duque Murua jauna, Informazio Egituren Ataleko teknikaria

Ekonomi Sustapen Sailari, beste jarduera-eremuez gain, Bizkaian enplegua sustatzea eta gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboan enplegua sustatzea dagozkio: Bizkaiko langabetuak gizareratzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko prestakuntza, baita pertsona horien gaitasunak eta potentzialtasunak hobetzea ere; kolektibo behartsuetako pertsonen prestakuntza; azpiegitura industrialak sortzea, enplegua sortzen lagun dezaten, eta azpiegitura estrategikoak sortzea Bizkaiko turismo- eta arrantza-sektoreetan; eta prestakuntza- eta enplegu-gaietan jarduten diren beste administrazio eta gizarte-eragile batzuekin hartu-emanak izatea eta koordinatzea.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiaren kabinetea:

Josu Bergara López jauna, Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako zuzendari nagusia

Ordezkoa: Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero Politiketako idazkari teknikoa

Diputatu nagusiaren kabinetea, uztailaren 2ko 274/2003 Foru Dekretuak sortua, diputatu nagusiaren laguntza-organoa da, eta haren mende dago zuzenean. Berdintasuneko eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritzari Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleen eskubideak babestea dagokio, desberdintasunekiko errespetua, eskubideen unibertsaltasuna eta aukera-berdintasuna oinarri hartuta. Genero Politiketako Idazkaritza Teknikoari Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatzea, programatzea, ebaluatzea eta haiei buruzko aholkularitza-lanak egitea dagozkio.

Eusko Jaurlaritza

↑ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea:

María Silvestre Cabrera andrea, zuzendaria

Ordezkoa: Ander Bergara Sautua jauna, Kooperazio Arloko arduraduna

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Idazkaritzari atxikia. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arlo guztietan lortzearen alde lan egiteko sortu zen. GURE ERKIDEGOAN SEXUAREN ARABERAKO DISKRIMINAZIO- ETA DESBERDINTASUN-EGOERAK AZTERTZEKO TRESNA DA, ETA HORI OINARRI HARTUTA, NEURRI ZUZENTZAILEAK BULTZATZEA DU HELBURUA.

↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:

Mariola Serrano Argüeso andrea, Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria

Uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren bidez aldatutako maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Herrizaingo Sailari dagokio, beste jarduera-eremu batzuez gain, "Genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzea". Halaber, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak 10. artikuluan jasotzen du Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zuzendu eta koordinatu behar duela Eusko Jaurlaritzaren politika genero-indarkeriari dagokionez.

↑ Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila:

Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuak xedatzen du Justiziako Sailburuordetzaren egitekoak hauek direla, besteak beste: Botere Judizialarekiko eta Justizia Administrazioan jarduten duten beste erakunde eta organoekiko harremanen inguruan Sailak dituen eskumenak betetzea; administrazio horrek ongi jarduteko behar dituen baliabideak jartzea; giza eskubideak babestea eta defenditzea; Justizia Agintaritzak xedatutako neurriak betearaztea; eta espetxeei buruzko eskumenak gauzatzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak

↑ Bilboko Udala:

Nekane Alonso Santamaría, zinegotzia

↑ Ermuko Udala:

Natividad Alonso Estalayo andrea, zinegotzia

↑ Ugaoko Udala:

Izaskun Landaia Larizgoitia andrea, alkatea

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duen 53/2003 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera, EUEDEL-Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateetako hiru ordezkari, Behatokiko osoko bilkuran parte har dezaten. EUEDEL-Euskal Udalerrien Elkarteak etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktime diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundearen arteko Akordioa sinatu zuen erakundeetako bat da, eta horretaz gain, akordio horren Jarraipen Batzordeko kide ere bada. EUEDEL-Euskal Udalerrien Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerri guztiek osatzen dute. Hala, beste erakunde guztiekin harremanetan jartzeko ordezkari egoki eta eraginkorra da, politika publikoak koordinatzeko eta haiei buruzko adostasunetara iristeko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Arloaren baitan sortutako “Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa”ren ordezkari gisa:

SIM ROMI - Emakume ijitoen elkarteak.
Rosa Jiménez Jiménez andrea

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa foro aholku-emailea da, eta kontuan hartzen dira bertan Bizkaiko Lurralde Historikoko jarduten diren emakumeen kolektiboek egindako planteamenduak. Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasun eta Genero Politiketarako III. Foru Planaren (2009-2011) jarraipenerako mekanismo dinamikoak ezartzen ditu.

↑ Genero Indarkeriaren arlotik:

ARGITAN –Emakumearen Zentro Aholku-emailea
Karmele Ozaita Andrés andrea, lehendakaria
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, diruzaina

“ARGITAN” Emakumearen Zentro Aholku-emailea 1996ko martxoan jarri zen martxan. Desberdintasuneko, diskriminazioko eta sexu-indarkeriako egoerak jasaten dituzten emakumeen beharrei erantzuten saiatzen da ARGITAN, kontuan hartuta, betiere, egoera horiek hainbat modutara ager daitezkeela. Batez ere lege- eta lan-aholkularitza, sexu- eta psikologia-laguntza eta gizarte-arloetako aholkularitza ematen dira. Horietaz gain, hainbat gairi buruzko jarduerak ere egiten dituzte, betiere genero-ikuspegia oinarri hartuz (tailerrak, ikastaroa, hizketaldiak, eztabaidak), eta denuntzia-, aldarrikapen- eta kontzientziazio-lana ere egiten dute.

↑ Genero Indarkeriaren arlotik:


AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua.

Marta Dolado Galíndez andrea, lege-aholkularia

Ordezkoa: Ana Fernández de Garayalde Ulacia andrea, soziologoa

Auzolan Laguntza Psiko-sozialerako Modulua irabazi-asmorik gabeko elkartea da, 1982. urteaz geroztik lanean diharduena osasun-maila hobetzen, osasuna alderdi bio-psiko-sozialetik landuz. Laguntza psikologikoa eta lege-aholkularitza eskaintzen ditu, baita helduentzako, haurrentzako eta gazteentzako osasun mentala, ugaltze-osasuna eta alkoholismoari eta toxikomaniei aurre egitea lortzeko neurriak ere.

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN ORGANIGRAMA 2010



4. Araudiaren garapena

Behatokiaren jarduera arau-esparru batek zehazten du eta honako berariazko xedapen hauek biltzen ditu, erakundearen sorkuntzari, osaketari eta funtzionamenduari dagokienez:

 53/2003 FORU DEKRETUA, martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duena. (BAOren 63. zk., 2003ko apirilaren 1ekoa)

 188/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena; beraren bidez Bizkaian Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Behatokia sortu duen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldarazi da. (BAOren 226. zk., 2004ko azaroaren 23koa)

 5.016/2005 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu duena. (BAOren 82. zk., 2005eko maiatzaren 3koa)

 5/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu duen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldarazi duena. (BAOren 29. zk., 2010eko otsailaren 12koa)

Azken Dekretu hori 2010eko otsailaren 13an hasi zen indarrean eta Behatokiaren Osoko Bileraren osaera eguneratu zuen, Behatokia osatzen duten erakundearen egitura organismo berriak eragindako aldaketen arabera; funtsean, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuaren 4. artikulua aldatu da, eta honela geratu da:

4. artikulua. Eraketa

A) Lehendakaritza:

- Gizarte Ekintza Saileko foru diputatua.

B) Lehendakariordetza:

- Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

C) Batzordekideak:

Lau (4) pertsona Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz, era honetan banatuta:

- Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila.
- Ekonomi Sustapen Saila.
- Gizarte Ekintza Saila.
- Ahaldu Nagusiaren Kabineteko Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusia.

Hiru (3) pertsona, Eusko Jaurlaritzaren ordezkapenean eta horrela banatuta:

- Emakunde.
- Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila.

Hiru (3) pertsona, Udalerrien eta Amankomunitateen ordezkapenean, EUDELe izendatuak.

Hiru (3) pertsona Elkarte eta Erakundeen ordezkapenean.

Hauetariko bi (2) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak aukeratuak genero indarkeriaren eremuan beren lana egin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan izena emana duten Elkarte eta Erakunde guztien artean, beraiek formulatutako proposamenei erantzunez. Bestea, "Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa"ren ordezkapenean. Foro hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiaren Kabinetearen barruko Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusiak eratutakoa da.

D) Idazkaritza:

- Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiko funtzionario bat.

5. 2009-2012ko Lan Planaren laburpena 2010eko aplikazioari dagokionez

5.1. Administrazio- eta funtzionamendu-zereginak

2010eko ekitaldian, Behatokiaren osoko bilkurak bi bilera egin zituen, martxoaren 5ean bata eta azaroaren 26an bestea. Horietan, honako gai hauek aztertu ziren:

- BGIBren 2009ko jarduera-memoria aurkeztea eta onartzea.
- “Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan” ikerketa aurkeztea eta aztertzea (Euskal Herriko Unibertsitateak aurkeztu du).
- “Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2009)” txostena aurkeztea eta baliozkotzea.
- *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010* dokumentua aurkeztea eta baliozkotzea.

Adierazleen Lan Taldea, bestalde, hiru aldiz bildu da: martxoaren 23an, maiatzaren 26an eta urriaren 27an. Lan-bileretan, alderdi hauek landu ziren batik bat:

- Adierazleen Lan Taldearen jardueraren 2010eko programazioa.
- Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan” ikerketa aurkeztea eta aztertzea Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik.
- Lurraldeko Datuak Biltzeko Fitxan sartzeko hobekuntzak lantzea eta onartzea (bilketak urtean behin eta sei hilean behin).
- 2009. urtean gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparruan indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako arretari buruzko datuak biltzeko prozesua koordinatzea, baita arreta hori gauzatzeko eskura dauden baliabideei buruzkoak ere.
- Datuak sei hilean behin biltzeko antolamendua eta garapena (2010eko lehen sei hilekoa), Bizkaiko udalerrien eta mankomunitateen jardunari dagokionez.
- “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, Aholkularitza

juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatuak eta Familia-elkarguneak. Bizkaiko Lurralde Historikoa (2010)” dokumentua hobetzeko proposamenak egitea eta dokumentua lantzea, berrikustea eta onartzea.

- “Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2009)” dokumentua hobetzeko proposamenak egitea eta dokumentua lantzea, berrikustea eta onartzea.
- Udal Kontaktu Sarea indartzea: OVGB/BIGB Buletinean sartu beharreko aldaketak lantzea eta onartzea, Sarearen ikusgaitasuna areagotzearen; eta Lan Taldearen bilerak irekitzea Lurralde osoko nahi duen erakunde informatzaileek parte har dezaten.

Era berean, eta Behatokiaren sorrera-dekretuan esleitzen zaizkion funtzioei jarraiki, Behatokiak 2009. urteko jarduera-memoria egin du eta martxoko osoko bileran aurkeztu eta onartu zen.

5.2. Hedapenaren eta harremanen gaineko zereginak: BGIBren harremanak eta jarduera eta produktuen hedapena kudeatzea

Komunikatzeko plataforma izaki, aurreko ekitaldietan bezalaxe, jasotako informazio-eskaera guztiei erantzun die BGIBk 2010ean. Eskaera horiek askotariko eragileek bidali dituzte eta, gehienetan, administrazio publikokoak izan dira.

Jarduerak eta produktuak hedatzeari dagokionez, Behatokiaren webgunea organoaren berri emateko eta organoa ikusgarri egiteko tresna da; genero-indarkeriari buruzko informazioa hedatzeko gunea da, baita Behatokiaren eta administrazioaren, profesionalen eta, oro har, herritarren arteko trukerako gunea ere. Horregatik, aurreko urteetako ildoari jarraiki, 2010ean webgunea zaintzeko eta sendotzeko zereginak kudeatu dira. Hala, Behatokiaren jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzen da, Behatokiak egiten dituen dokumentuak argitaratzen dira, eta genero-indarkeriari buruzko material garrantzitsuak eskura daitezke bertan.

Horrezaz gain, aldizkako komunikazio-tresna den aldetik, Behatokiak hiru hilean behin argitaratzen den albisteen bulletina edo *newsletter*-a dauka, *Boletín OVGB/BGIB Buletina*

izenekoa. 2010ean lau ale argitaratu dira: 16. zk. martxoan, 17. zk. ekainean, 18. zk. irailean eta 19. zk. abenduan.

5.3. Urteko txostenak: BGIBren produktuak eta txostenak egitea

2009-2012 Lan Planeko helburuetako bat datuen analisia eta joeren identifikazioa hobetzea, BGIBk ekoizten dituen txostenetako analisi-lerro batean sakonduz; helburu horrekin jarraituz, "Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2009)" dokumentua, aurreko urteko bertsioa bezalaxe, honela osatuta dago: lehen zatian, indarkeriarekin loturik, gizarte-, polizia- eta epai-eremuetan artatutako emakumeen bolumenari buruzko datuen azterketa deskribatzailea egiten da; datuak berak jardun-eremuaren arabera multzokatuta daude, kontsumotako hainbat formaturekin.

"Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatuak eta Familia-elkarguneak. Bizkaiko Lurralde Historikoa" dokumentuari dagokionez, hori ere urtero argitaratzen da eta erakundeek indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko prestatutako zerbitzuei buruzko informazio zehatza ematen du. 2010. urtean azken bertsioa argitaratu da.

Horrekin batera, baliabide hauen eguneratze-lanak egiten jarraitu da: "Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa", "Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlas" eta "Online dokumentu-kudeatzailea". Lurraldeko erakunde publikoek indarkeriaren arloan kudeatzen dituzten zerbitzu espezializatuak buruz sortutako informazioarekin osatuta daude. Gizarte-babesaren, poliziaren, justiziaren, osasunaren eta elkarten arloko baliabideak ere jasotzen dituzte, genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko sarea osatzen dutenak; aurki daitezke, halaber, berdintasun-planak eta -programak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, eta Lurraldeko udalerrri eta mankomunitateetan ezarritako koordinazio-protokoloak, baita gaiarekin lotutako beste dokumentu batzuk ere.

2010ean, halaber, *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua* landu eta argitaratu da. 2010. urtean zehar osatu da eta EBtik kanpoko, nazioarteko, Erkidegoko, Estatuko, autonomia-erkidegoko, foru-arloko eta tokiko administrazio publiko, elkarte eta erakunde pribatuek bi eremu hauetan inplementatutako jarduerak biltzen ditu: Prebentzioa (azpiatalak: hezkuntza, sentsibilizazioa, eta

komunikabideak eta publizitatea) eta Arreta (azpiatalak: arreta-zerbitzuak, emakumeen aurkako indarkeriaren eremuko profesionalen prestakuntza eta erakunde arteko koordinazioa).

5.4. Datuak biltzea

2010ean, bere eginkizunak betez, Behatokiak datuak biltzen jarraitu du; hala, indarkeriaren biktima diren emakumeei gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloetan artatutako emakumeen kopurua aztertu du, eta jaso du, baita ere, egoera horiei laguntza eman dieten baliabideek zer ezaugarri dituzten. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Sailek, Lurraldeko udalerri eta mankomunitateekin batera, urteroko prozesu horretan laguntzen digute, euren jarduerari buruzko informazioa emanez.

2010. urtean berrikuntza bat izan da: datuak sei hilean behin bildu ditugu, urteko lehen erdian udalerri eta mankomunitateetako programetan artatutako emakumeen bolumenaren berri izateko.

2007. urteaz geroztik, Behatokiak galdetegi digital pertsonalizatu bat dauka udal eta mankomunitateentzat, eskatutako datuak betetzea, bidaltzea eta tratatzea errazagoa izan dadin haientzat. 2010ean, aurreko urteetan bezala, tresna hori hobetu egin da, hobekuntza teknikoak eta edukizkoak egin baitira. Horretaz guztiaz gain, datuak sei hilean behin bildu direnez, horretarako egokitutako tresna berria landu dugu.

6. BGIBren jarduerak

a. Osoko Bilerak

Behatokiaren antolaketa- eta funtzionamendu-araudiaren arabera, Behatokiaren ohiko osoko bilkura urtean bitan egingo da; eta ez-ohikoa lehendakaritzak deitzen duen guztietan, lehendakaritzak berak eskatuta edo gutxienez kideen herenak eskatuta.

2009an, deitutako bi bileretara joan ziren osoko bileraren ordezkariak.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
		5								26	

■ 2010eko martxoaren 5eko bilera

Behatokiaren 2009ko jarduera-memoria aurkeztu eta onartu da.

Euskal Herriko Unibertsitateak “Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan” ikerketa aurkeztu du.

■ 2010eko azaroaren 26ko bilera

“Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2009)” izeneko dokumentua aurkeztu eta onartu da.

Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010 dokumentua aurkeztu eta baliozkotu da.

Eranskinak kontsultatzeko:

[2010eko martxoaren 5eko bilera](#)

2010eko azaroaren 26ko bilera

b. Adierazleen Lan Taldea

Behatokiaren osoko bilkurak 2004ko urriaren 22an egindako bileran, Adierazleen Lan Taldea sortzea onartu zen. Lan-talde hori emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren fenomenoaren oinarri homologagarri eta denboran konparagarri batean neurtzeko beharrezkoak diren adierazleak eratzeko sortu zen.

2010. urtean, Adierazleen Lan Taldean, honako erakunde eta pertsona hauek hartu zuten parte:

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila:

Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua
(Lan-taldearen koordinatzailea)

Ordezkoa: *María Dolores Menchaca Araluce andrea*, Emakume eta Familia Zerbitzuko burua

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Saila:

2010eko maiatzera bitarte:

Mikel Madariaga Landajo jauna, Saileko Enplegu Zerbitzuko antolaketa-teknikaria

Ordezkoa: *Alberto Renedo Anchía* jauna, Saileko Antolaketa-sistemen Ataleko antolaketa-teknikaria

2010eko maiatzetik aurrera:

Francisco Aguiriano Miranda jauna, Ekonomi Sustapen Saileko Informazio Egituren Ataleko burua

Ordezkoa: *Juan José Duque Murua* jauna, Ekonomi Sustapen Saileko Informazio Egituren Ataleko teknikaria.

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiaren kabinetea:

Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero Politiketako idazkari teknikoa

↑ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea:

Raquel Raposo Acevedo andrea, Programak Sustatzeko arduraduna

↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:

Marimar Rueda Fernández andrea, Estatistika Arloko burua

Ordezkoa: *José Luis Yanguas Pérez* jauna, Estatistika Arloko teknikaria

↑ Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila:

2010eko azarotik aurrera:

Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak (EUDEL)

- ↑ Gernika-Lumoko udala (Titularra)
Ixone Badiola Lekue andrea, Gernika-Lumoko Udaleko Berdintasuneko teknikaria
- ↑ Ermuko Udala (Ordezkoa)
Begoña Fernández Alcalde andrea, Ermuko Udaleko Berdintasuneko teknikaria
- ↑ EUDEL (Kolaborazioa)
Mireia Espiau Idoyaga andrea, EUDELeke Berdintasuneko teknikaria

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

- ↑ ARGITAN –Emakumearen Zentro Aholku-emailea
Karmele Ozaita Andrés andrea, lehendakaria
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia, diruzaina
- ↑ AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua:
Marta Dolado Galíndez andrea, abokatua
Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias andrea, abokatua

Aldi berean, Adierazleen Lan Taldeak hiru bilera egin ditu 2010. urtean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren bulegoetan izan dira, Behatokiak han baitu egoitza.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
		23		26					27		

■ 2010eko martxoaren 23ko bilera

Euskal Herriko Unibertsitateak martxoaren 5eko bileran “Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan” ikerketaren aurkezpenean emandako azalpenen berri eman da. Azterlana Lan Taldearen foroan laster aurkeztuko dela iragarri da.

Taldearen 2010erako lan-programa adostu da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, udal eta mankomunitateen zerbitzuei eta jardunari buruzko urteko informazio-bilketa egiteko Lurraldeko Fitxak Biltzeko Fitxan sartu beharreko hobekuntzak berretsi dira.

Boletín OVGB/BIGB Buletina aldatzeko proposamena onartu da, Udal Kontaktu Sarearen ikusgaitasuna indartzearen argitalpenean atal berri bat txertatuz; atal horretan,

informatzaileek euren ikuspegia adieraziko dute Bizkaiko Lurralde Historikoan abiarazitako genero-indarkeriaren aurkako ekimen eta baliabideei buruz. Eudelek Lan Taldean dituen ordezkariak eta Ermuko eta Gernika-Lumoko Udaletako berdintasuneko eragileak atal berria estreinatzeko konpromisoa hartu dute.

Erabaki dutenari jarraiki, Lan Taldeko kideek Behatokiaren Idazkaritza Teknikora bideratuko dituzte OVGB/BIGB Buletinean argitaratzeko modukoak diren edukiak.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak Lan Taldean duen ordezkariak Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan kontsultatuko du Eusko Jaurlaritzaren jardunei buruzko datuak (poliziaren eta gizartearen arlokoak) lortzeko kudeaketari dagokion prozedura berria; hori egindakoan, jasotako erantzuna Lan Taldeko koordinatzaileari eta Idazkaritza Teknikora helaraziko du.

■ 2010eko azaroaren 26ko bilera

Euskal Herriko Unibertsitateak “Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan” ikerketa aurkeztu du.

“Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. ... (2010)” dokumentuaren zirriborroa aurkeztu da.

Dokumentuaren edukia zabaltzea erabaki da, Familia Elkarguneei buruzko atal berri bat sartuta; izan ere, zerbitzu horietan kasu asko izaten dira Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Aginduren bat tarteko dela.

“Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei... 2010” dokumentua onartu da, betiere edukia zabaltzeko eta Familia Elkarguneei zerbitzuak ere sartu ondoren.

I. blokeko (gizarte-babesaren esparrua) “Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua 2009” dokumentuaren aurrerapena aurkeztu da, baita onartu ere. Eta “Bizkaiko... 2009” dokumentua osorik lantzeari loturiko erabakiak hartu dira.

Ermuko eta Gernika-Lumoko Udalek Lan Taldean dituzten ordezkariak Boletín OVGB/BIGB Buletinaren “En red/Sarean” atal berrirako erantzunak Idazkaritza Teknikora bidaliko dituztela erabaki da.

■ 2010eko urriaren 27ko bilera

Bilera horretan Santurtziko Udaleko ordezkaria (Iñaki López de Munain jauna) eta Basauriko Emakumeen Informazio Zerbitzuko ordezkaria (Conchi Gómez andrea) izan dira; izan ere, Behatokiak erakunde informatzaileen sareko kideei gonbidapena bidali zien Lan Taldearen 2010eko bileretara joateko eta bi erakunde horiek gonbidapena onartu dute.

“Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2009)” izeneko dokumentua aurkeztu eta onartu da.

Indarkeria-arazoak direla-eta udalen eta mankomunitateen harrera-baliabideetan, aholkularitza juridikoko eta arreta psikologikoko baliabideetan artatutako emakumeei buruzko datuak sei hilean behin biltzeko proposamena aurkeztu eta onartu da eta 2010eko lehen sei hilekoan egingo da.

Eranskinak kontsultatzeko:

[2010eko martxoaren 23ko bilera](#)

[2010eko maiatzaren 26ko bilera](#)

[2010eko urriaren 27ko bilera](#)

c. Kanpo Harremanak

Jarduera-arlo honetan, Behatokiari egiten zaizkion informazio-eskaerei erantzuten zaie. Eskaera horiek Administrazioak egin ditzake, baita emakumeen aurkako indarkeriari buruz datuak behar dituen zeinahi erakunde eta pertsonak ere, nazioarteko esparrukoa nahiz tokikoa izan. Eskaera horien erantzunak telefonoz eta posta elektronikoz kudeatzen dira, eta azken kasu horretan, organoaren helbide elektronikoa baliatuz: ovgb.bgib@bizkaia.net.

2010eko ekitaldian, hainbat arlotako profesionalak (kazetari eta psikologoei, besteak beste), erakunde publikoetako sailek, elkarteek, erakunde pribatuek, Goi-mailako Hezkuntzako ikasleek... egindako kontsultei erantzun die Behatokiak, honako alderdi hauei buruz: arazo honen biktimei laguntzeko dauden zerbitzuak, zerbitzu horien espezifikotasunak, datu estatistikoak eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostenei, azterketei, ikerketei eta argitalpenei buruzko dokumentazioa, besteak beste.

Sentsibilizazio-lanei dagokienez, azaroaren 26an, Barrikako Udalak egindako gonbidapena onartu eta Behatokiak, azaroaren 25a gogorarazteko ekitaldien barruan, genero-indarkeriari buruzko jardunaldi batean parte hartu zuen; M.^a Paloma Álvarez Álvarez andreak —Infópolis 2000, SLren zuzendari teknikoa—, Behatokiaren Idazkaritza Teknikoaren izenean, honako hitzaldi hau eman zuen: “Etxeko indarkeria Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ikuspegitik. Uribe Kostako tresnak”.

Hitzaldian hogeita hamar bat pertsona egon ziren, baita Udalerriko eta Uribe-Kosta Zerbitzuen Mankomunitateko politikariak eta teknikariak ere, eta hainbat gai aurkeztu zituen:

1. Etxeko indarkeriaren egoera Bizkaian, BFaren Gizartekintza Sailak egindako *“Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan”* ikerketaren emaitzetan oinarrituta.
2. BGIB Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren lana: helburuak, osaera, jarduerak, webgunea eta Boletín OVGB/BGIB Buletina.
3. Indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta koordinatzeko protokoloa Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatean: Jarduteko prozedurak eta printzipio gidarien alderdi orokorrak.

4. Gai honi buruzko hausnarketa: "Nola defendatzen dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak?".
5. Eremu sinbolikoa eta egiturazkoa zuzeneko indarkeriaren jatorritzat.
6. Jarrera sexistak berraztertzeke premia, intentsitate txikiko indarkeria atzematea, emakumeen eskubideen errekonozimendua bera eta bizitzarako eta harreman afektiboetarako asmoak, prebentzio-eremutzat.
7. Sareak eta ahalduntzea.

Ekitaldia 18:00etan hasi eta 21:30ak arte luzatu zen. Azalpenaren ostean, jendeak hitz egiteko txanda izan zen eta gai orokorrarekin loturiko beste hainbat gai lantzeaz gain, Bizkaian Genero Indarkeriaren Behatokia izatearen zentzua eta interesa azpimarratu zuen hizlariak eta Behatokiak hasiera-hasieratik egindako lana, sortutako dokumentuak eta organoaren webgunea ere aurkeztu zituen. Hitzaldia amaitu zenean, ikusleen artetik zenbait pertsonak BGIB buletina jasotzeko izena eman zuen.

d. Webgunea

Behatokiak webgune bat kudeatzen du 2004. urteaz geroztik, eta bertara Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren webgune honako esteka honetatik iristen da:

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Honako helburu orokor hauek betetzeko sortu zen webgunea: lehenik eta behin, organoaren jardura hedatzea, bigarrenik, emakumeen aurkako indarkeriaren ikerketa-lana eta erradikazioari buruzko informazioa trukatzea, hirugarrenik, lan-tresnak diseinatzea, eguneratzea eta hedatzea, eta azkenik, Behatokiaren eta erakunde hizketakideen artean ideien eta dokumentuen trukea erraztea.

Aurreko urteetan egindakoarekin bat etorriz, 2010ean gune hau informazioaren hedapenerako eta komunikaziorako plataforma izan dadin sustatu da. Horretarako, mantentze-lan egokia egin da, informazioa etengabe eguneratuz eta beharrezko egitura-aldaketak eginez, gune edukietarako sarbidea ahalbidetzeko eta horrekin lotutako berrikuntzak txertatzeko.

Behatokiaren webgunea 16 sarreratan dago egituratuta (horietatik zortzik testuak jasotzen dituzte):

- **Definizioa:** Behatokiaren aurkezpena; aurrekariak; helburuak eta zereginak.
- **Kideak:** Behatokia osatzen duten pertsonak identifikatzeko zerrenda, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunde ordeztzen duen zehazten duena.
- **Bilerak:** osoko bilkuren egutegia eta haietan onartutako dokumentuak.
- **Dokumentuak:** protokoloak, legeria, nazioarteko baliabideak, azterketak eta gidak, eta Behatokiak sortutako dokumentuak jasotzen dira bertan.
 - BGIBren Lan Plana (2009-2012)
 - BGIBren Lan Plana (2004-2008)
 - BGIBren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia

- Jarduera-memoria (2004, 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2009)
 - “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009)” dokumentua
 - “Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatua eta babesa ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan ” txostena (urtea: 2010)
 - “*Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak (2006)*” argitalpena
 - “*Manual de prácticas, iniciativas y experiencias contra la violencia de género, 2006*” (Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2006) argitalpena.
 - “*Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua (2010)*” argitalpena.
 - “Europar Batasunaren emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko zifrak, 2006” dokumentua.
 - “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2004-2008ko epealdia” azterketa.
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” (Argitalpenaren Sintesia/Testu Osoa) dokumentua.
- Baliabideen mapa: Bizkaian genero-indarkeriaren arretaren arloan diharduten erakundeen –instituzio- zein elkarte-arlokoen– eta baliabideen datu-basea. Berdintasun-planetarako, indarkeriaren aurkako programetarako eta ekintza koordinatuko protokoloetarako sarbidea ere errazten du; izan ere, ekimen horien erakunde titularrek –udalerriek eta mankomunitateek– BGIBri helarazten dizkiote, hark heda ditzan. Mapak “baliabideen bilatzaile” izeneko aplikazioa dauka. Horri esker, zerbitzuen zerrendak lor daitezke (gizarte-arloko baliabideak, justizia-arloko baliabideak, elkarteak eta beste batzuk, indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak, polizia-arloko baliabideak, osasun-arloko baliabideak eta berdintasunerako tresnak) honako hiru bilaketa-aukera hauen arabera:
- Udalerrri guztiei dagozkien baliabideak guztira

- Aukeratutako udalerriari dagozkion baliabideak guztira
- Udalerri guztien barruan, aukeratutako arloen baliabideak guztira
- **Adierazleak:** bi atal biltzen ditu, Lan Taldea eta Zifrak.
 - Lan-taldea deritzon atalean, Adierazleen Lan Taldeko kideen zerrenda dago, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakundetatik datorren adierazita; gainera, elkarraldien egutegia eta horietan sortutako dokumentuak ere badakartza.
 - Zifrak deritzon atalak, bestalde, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentuaren 2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko, 2008ko eta 2009ko edizioak eskaintzen dizkigu.
- **Baliabideen atlas:** bilduma kartografiko honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen dizkieten arreta juridikoko, arreta psikologikoko eta harrera-baliabideetako arretak zer eremu hartzen duten azaltzen da; horietaz gain, indarreko berdintasun-politiken berri ere ematen da (planak, arloak, sareak eta eragileak).
- **Dokumentu-kudeatzailea:** udaletako berdintasun-planak, udal-programak, udal-protokoloak eta aplikatu beharrekoa den legedia Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta estatuan.
- **Loturak:** gune honetan, Behatokian parte hartzen duten erakundeen webguneen estekak ditugu, eta baita beste erakunde batzuenak, antzeko behatokiak, eta erakunde, programa eta proiektuenak ere.
- **Parte hartu OVBG-BGIBren ebaluazioan:** Behatokiaren eta haren webgunearen funtzionamenduari buruzko *online* inkesta, gunea kontsultatzen dutenek betetzeko.
- **Buletina:** hiru hilean behingo argitalpen elektronikoa; bertara webguneko orrialdeetatik iristen da, azken argitalpenera nahiz argitaratutako zenbaki guztiak biltzen dituen historialera.
- **Hizkuntza:** euskarazko edo gaztelaniazko bertsioa aukera dezakegu webgunean nabigatzen ari garela.
- **Harremana:** erakundearekin harremanetan jartzeko datuak erregistratzen ditu, hala nola kokagunea, helbide elektronikoa, telefonoa eta faxa.
- **Postontzia:** Behatokiaren posta elektronikoko helbidea, ovgb.bgib@bizkaia.net

- **Irisgarritasuna.**
- **Web-mapa.**

Behatokiaren lehentasuna da aniztasun funtzionala duten pertsonentzat edota, informazioa eskuratzerakoan oztopo teknologikoak dituztenen pertsonentzat tresna praktiko eta erabilgarria izatea, *online* dagoen informazioa lortzerakoan eta kudeatzerakoan berdintasuna sustatuko eta bermatuko duena, gaur egungo baldintza teknologikoak kontuan hartuta. Irisgarritasun hori bermatzeko, orrialde guztiek WAI ekimenak (Web Accessibility Initiative) emandako gomendioak betetzen dituztela egiaztatu da.

e. Udal Harremanetarako Sarea (UHS)

Behatokia lanean hasi zenetik, Lurraldeko udalerriekiko eta mankomunitateekiko harremanak Behatokiaren jardueraren oinarrietako bat izan dira. Izan ere, erakunde horiek Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoaren berri izateko ezinbesteko informaziorako lehen mailako iturritzat hartzen dira.

Informazio-emate horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko 112 udalerrietako eta 9 mankomunitateetako Berdintasuneko eta Gizarte Zerbitzuetako arloetan diharduten profesionalak esku hartzen dute, hori guztia, udalerri bakoitzeko erreferentziazko harremanak identifikatzeko, ezartzeko, mantentzeko eta eguneratzeko xedez, Behatokiari eskuragarri dauden baliabideei eta emandako arretei buruzko aldian behingo eta eguneratutako informazioa emango dioten eragileekin.

Horrela, UHSk Bizkaiko udalen eta mankomunitateen lanaren bitartez emandako laguntza aktibo horrek aipaturiko tokiko erakundeek emandako urteko datuak biltzeko eta aztertzeko prozesuaren kudeaketa errazten dio Behatokiari.

2007. urteaz geroztik, EUDEL Euskal Udalen Elkarteak (BGIBko kide da, eta Adierazleen Lan Taldeko partaide) jakinarazpen bat sinatzen du Behatokiarekin batera; horren bitartez, informazioa biltzeko prozesuari hasiera ematen zaio, Behatokiari laguntza ematera bultzatuz eta erakunde informatzaile bakoitzari figura solaskide bat izendatzeko eskatuz.

Udalerriek eta mankomunitateek emandako informazioari esker, egoera horiei laguntza emateko Lurraldeko baliabideen mapa ezar eta berri daiteke, emakumeen aurkako indarkeriako egoeren kasuetan emandako arretari dagokionez nahiz tokiko erakundeek artatutako emakume biktimen erregistro estatistikoari dagokionez: hala, informazio hori Behatokiak egiten dituen produktuetan jasotzen da.

Aurreko urteetan bezala, 2010ean ere tokiko administrazioek hasiera batean emandako datuak ustiatu ondoren, betetako lehen galdesortetan oinarrituz trataturiko informazioa banan-banan igorri zaie tokiko administrazio horiei, informazioaren egiaztapena nabarmentzeko eta datu fidagarriak hedatzeko asmoz.

Bi fase horiek –informazio-bilketa eta emakumearen aurkako indarkeriako egoerei tokiko botereek emandako erantzunaren jarraipena– agerian uzten dute Behatokiaren eta UHSren arteko hartu-emana arina eta naturala dela.

Behatokiak berak, halaber, erakunde informatzaileei aurreratu ohi die horien lankidetzarekin sortutako dokumentuen eta tresnen argitalpena.

Tokiko erakundeekiko komunikazioa, normalean, posta elektronikoa bidez (postontzia ovgb.bgib@bizkaia.net), posta idatzi bidez edota telefonoaren bitartez kudeatzen da; dokumentuak, informazioa eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lan-tresnak hedatzeko, Behatokiaren webgunea erabiltzen da edo, zehazki, OVGB/BGIB Buletina, sareari informatzeko diseinatu zena.

Bestalde, eta noranzko biko komunikazioaren adibide legez, udalek eta mankomunitateek, maiz, Behatokiari interpelatzeko diote lurralde-esparruan eta esparru autonomikoan txeratzen diren zerbitzu, programa eta proiektu publikoen gainean.

Udal Harremanetarako Sarea bultzatzeko eta sendotzeko neurri gisa, 2010ean OVGB/BGIB Buletinean atal berri bat gaitu da; “Sarean” deritzon atal berri horren jomuga zera da, erakunde informatzaileek argitalpenean aktiboki parte har dezaten lortzea, hain zuzen. Horrela, urte osoan, atal berri horri edukia emateko, Ermuko, Gernika-Lumoko eta Bilboko Udalen laguntza izan dugu (BGIB Buletina, 17.a, 18.a eta 19.a, hurrenez hurren).

Sarea sendotzen saiatzeko jardun-ildo horretan, erakunde informatzaileak Behatokira hurbiltzeko guneak abiarazten saiatu gara, Lan Taldeak urtean egindako bileraren batera joateko gonbidapen orokorra eginez. Horren ondorioz, Taldeak urriaren 27an egindako bilerara Santurtziko Udaleko eta Basauriko Emakumeen Informazio Zentroko ordezkariak bertaratu ziren; arestian aipaturiko Zentroak aholkularitza juridikoko eta arreata psikologikoko zerbitzuak ematen dizkio Basauriko udalerriari.

f. Informazioa kudeatzeko sistema integrala

Behatokiak, 2010eko datu-bilketako prozesua abiarazteko eta gauzatzeko, informazioa kudeatzeko sistema integrala erabili du. Sistema hori 2007ko ekitaldian gaitu zen, indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako arretei buruzko datuak eta emakumeei arreta emateko baliabideen berezitasunak biltzeko, erregistratzeko eta ustiatzeko lana arintzeko eta optimizatzeko Lurraldeko udalerrietarako eta mankomunitateetarako.

Tokiko erakundeek emandako informazioa biltzen duen datu-basea da; erakundeek informazioa helarazteko, galdesorta digital pertsonalizatu bat betetzen dute, aurreko urteetako datuak ere gordetzen dituen eta, horrenbestez, informazio berria edo zerbitzariak gordeta duen informazioarekin alderatuta desberdina dena baino ez dute sartu behar. *BackOffice* tresnaren bidez, fitxetan jasotako datuen zerrendak eta estatistikak atera daitezke.

Urteko datuak biltzeko formularioak sei atal nagusi ditu, gaika antolatuta daudenak, eta erakundeek zer baliabide eskaintzen dituzten eta beren jardunean zenbat arreta eman dituzten erantzun behar dute:

- Tokiko Erakundea
- Gizarte-baliabideak eta berdintasunerakoak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Emakumearen edota Berdintasunaren Arloa, Berdintasun Plana, Indarkeriaren aurkako Plana, Berdintasun Agentea, Berdintasun Kontseilua, Ekintza Koordinaturako Protokoloa eta Berdinsarea.
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Aholkularitza psikologikoko baliabideak
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei Babesa emateko baliabideak
- Beste baliabide batzuk: Familia Batzeko Gunea, Telefono bidezko Arreta-zerbitzua, eta abar

Galdesorta digitalak honako dokumentu honetarako zuzeneko sarbidea dauka: "Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak"¹, Kontzeptuak argitzeko eta datu-bilketaren helburua erdiratzeko xedez.

¹ Sexu-erasoak eta Etxeko Tratu Txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen barruan egin zen dokumentu hori.

Orobat, galdesorta betetzean sor daitezkeen zalantzei erantzuteko, informazio-hornikuntzaren ardura duten erakundeek telefono bidezko arreta-zerbitzua edo posta elektronikoa erabil dezakete.

Sistema honek informazioaren kudeaketa, prozesuaren jarraipena, datuen tratamendua eta erakunde informatzaileekiko elkarreragina errazten du, eta horrenbestez, euskarri homogeen batean **datu egiaztagarriak biltzeko kultura** sustatzen da.

Sistemaren mantentze-lanei dagokienez, Behatokiak etengabeko hobekuntzaren ikuspuntua hartu du: hobekuntza-elementuak identifikatzen ditu, erakunde erabiltzaileek egiten dituzten eskaeretan eta barne-hausnarketan oinarrituta. Printzipio horren ondorioz, 2010eko ekitaldian zenbait aldaketa formalizatu ziren datu-basean eta informazioa biltzeko galdesortan, informazio gehiago eta hobe lortzeko eta formularioaren erabilera optimizatzeko xedez:

■ Datu-basea:

- Sistema egokitu da, karaktereen adieraztasuna hobetzeko.
- Aplikazioa berriz diseinatu da, formularioko galderen edizioa urrutitik ahalbidetzeko.

■ Informazioa biltzeko galdesorta:

- Erakunde-jardunaren erreferentziazko urteei dagokienez urtero erregistratu behar diren aldaketetara egokitu da galderen idazkuntza.
- Galderen adierazpena hobetu da semantikari dagokionez, anbiguitasuna saiheste aldera.
- Erantzun-aukera gehiago ezarri dira, ahalik eta kategoria kopuru handiena aintzat hartzeko xedez.
- Beste galdera bat ipini da, harrera-baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen jatorriari buruzkoa.

Era berean, BGIBren 2009-2012 Lan Planean aurreikusitako sei hilean behingo datu-bilketari heltzeko xedez, informazioa kudeatzeko Sistema areagotu da, helburu horretarako sortutako eta egokitutako formulario bat txertatuz; era berean, adierazitako formularioak artatutako emakumeen kopuruan eta ezaugarrietan (harrera-baliabideak, aholkularitza juridikoa eta arreta psikologikoa) oinarritzen du informazio-eskaria. Horren guztiaren ondorioz, datu-basea informazio-kategoria berriaren harrerara eta kudeaketara egokitu behar izan da.

g. Baliabideen mapa

Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko baliabideen mapa datu-base bat da, eta Behatokiaren webgunetik du sarbidea. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen eskariei erantzuteko Lurraldean dauden baliabideei buruzko informazioa jasotzen da bertan.

Ohikoa denez, 2005. urteaz geroztik hona aktibatuta dagoen tresna horretan mantentze- eta eguneratze-lanak egin dira azken urtean, arreta-sarean ekimen jakin batzuk –hala nola berregituraketak eta zerbitzu berriak– egon direla jakin ahala.

Mapak zortzi atal ditu; udalerri bakoitzari buruzko datu zehatzak azaltzen dira, udalerriz udalerri antolatuta: indarkeriaren aurkako Zerbitzu espezifikoak, gizarte-, polizia-, justizia- eta osasun-zerbitzuak, elkarteak eta berdintasun-tresnak (berdintasun-planak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, eta indarkeriaren aurkako ekintza koordinaturako protokoloak).

Mapak, horrela, dauden baliabideen eta horien deskribapenaren gaineko informazioa ematen du, eta horretaz gain, gaiarekin lotutako dokumentazioa ere eskura daiteke. Bi informazio-maila daude:

- A. **Udaletako fitxak:** mapa grafikoan edo zerrendan udalerria hautatu ondoren, aukeratutako herrian dauden baliabideei buruzko informazio-fitxa bat agertzen da.
- B. **Baliabideen zerrenda:** mapak baliabideen bilatzaile bat dauka, bilatzaileak zerrendak lortzea ahalbidetzen duena, honako hiru bilaketa-aukera hauen bidez:
 - mapan jasotako baliabide guztiak, udalerri guztiei buruzkoak;
 - udalerri bakar bateko baliabideen sorta bat;
 - udalerri guztietako baliabideen sorta bat.

Halaber, kontsultak egin ondoren ateratako datuen zerrenda Excel formatura eramatea ahalbidetzen duen aplikazio bat ere badu adierazitako tresnak.

Zabaldutako informazioa jende objektiboarentzat interesgarria dela irizten da:

- Arreta ematen diharduten profesionalak eta erakundeak: herrian edota mankomunitatean eskura dauden baliabideei buruzko informazio integrala ematen da, betiere baliabide horiek zerbitzuak hobetzeko balio badute; genero-indarkeriaren arloan indarrean dagoen araudiari buruzko dokumentazioa –planak, programak edo udalerriek eta mankomunitateek ezarritako protokoloak– ere kontsulta daiteke.
- Eraginpeko pertsonak: arreta emateko zer baliabide gaituta dauden xehatzen da, horiekin harremanetan jartzeko datuak emateaz gain.
- Politika publikoen arduradunak: datu eta informazio fidagarriko sarbidea errazten da, egungo egoera baloratzeko eta jardun-neurri berriak hartzeko.
- Herritarrak/erkidegoa: indarkeria-egoeretako arretan esku hartzen duten erakundeak eta baliabideak identifikatzen dira.

Abian jarri zenez geroztik, Baliabideen Mapak onespena lortu du lan-tresna gisa, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAE osoko hainbat erakundek erabili ohi dute, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren “*genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko Arreta-zerbitzuak*”.

Eranskinak kontsultatzeko:

[Genero indarkeriaren arloko baliabideen mapa](#)

h. Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren atlasa

Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlasean, mapen bilduma bat jaso da, grafikoki adierazteko gizarte-arloan genero-indarkeriako egoerei laguntza emateko dauden zerbitzuen sareari nahiz erakunde publikoek hartutako berdintasun-tresnei buruzko informazioa: planak, programak, protokoloak, eta abar.

Behatokiaren webgunetik sartzten da 2010eko datuekin eguneratu den informazio horretara, eta informazioa bost ataletan antolatuta aurkezten da:

Planak eta programak

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, 1., 2. edo 3. edizioa den edota egiteko dagoen kontuan hartuta
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, zer urtetan onartu diren kontuan hartuta
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, langile tekniko espezializatuak ote dituzten kontuan hartuta

Koordinazioa

- Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarea, BERDINSAREA
- Etxeko Tratu Txarren Biktima diren Emakumeentzako arreta hobetzeko tokiko eta eskualdeetako protokoloak

Harrera

- Bizkaiko Lurralde Historikoan Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako harrera-baliabideak, tokien kopurua kontuan hartuta
- Bizkaiko Lurralde Historikoan Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako harrera-baliabideak, zer urtetan sortu ziren kontuan hartuta

Arreta psikologikoa

- Arreta Psikologikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbat arreta-ordu eman diren kontuan hartuta
- Arreta Psikologikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta

Aholkularitza juridikoa

- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbat arreta-ordu eman diren kontuan hartuta
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta

Eranskinak kontsultatzeko:

[Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren atlasa](#)

i. Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak” deritzon dokumentuak (Behatokiaren webgunetik sar daiteke dokumentu horretara) adierazitako hiru jardun-esparruetako erakunde publikoek emandako informazioa biltzen du; horri dagokionez, 127 informazio-iturri daude guztira, zehazki, honako hauek: 112 udalerri, 9 mankomunitate, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Saila, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta Azterketa Arloa, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea, eta Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua eta Ofiziozko Txanda.

Aurreko edizioarekin alderatuz, 2010ean nobedade bat txertatu zen dokumentuaren edukian, zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Herrizaingo Saila) genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek jasotako laguntza ekonomikoei buruz emandako datuetan oinarrituz lortutako informazioa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako 2007ko azaroaren 29ko Aginduaren arabera (horren bitartez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako diru-laguntzak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eman eta ordaintzeko prozedura ezarri da).

Era berean, nobedade gisa, “Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak, 2005-2009” izeneko ikerlanaren emaitza nagusiekin hasten da dokumentua, zerbitzuen eskariaren neurria testuinguruan kokatzeko erreferentziazko esparru gisa.

Txostena bi bertsiotan aurkezten da:

- Dokumentu osoa, honako elementu hauek dituenak:
 - Azterketa-dokumentua(k)
 - Terminoen glosarioa
 - Datuen iturriak
 - Datu-taulen eranskina
 - Dokumentu-eranskina (emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa, erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak adostua)
- Azterketa-dokumentuak eta datu-taulak jasotzen dituzten liburuak (pdf eta xls), gaika antolatuta:
 - Azterketa deskribatzailea jasotzen duten 3 dokumentu (Gizarte-, Polizia- eta Justizia-arloak)
 - Datu-taulak (xls) jasotzen dituzten 10 liburu
 - Datu-taulak (pdf) jasotzen dituzten 10 liburu

Gizarte Babeseko esparruan liburu berria txertatze horrekin, aurreko edizioetako gaikako edukiari eutsi zaio, hiru jardun-alorrei dagokienez:

■ GIZARTE BABESAREN ARLOA:

Bai Azterketak bai datu-taulek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: Harrera (larrialdiko zerbitzua, epe ertaineko edo luzeko arreta-zentroak eta -pisuak), Aholkularitza Juridikoa, Laguntza Psikologikoa, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatuta, Familien Elkarguneak, Etxebizitza, Telefono bidezko Arreta eta Laguntza Ekonomikoak.

Informazio-iturriak: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren Emakumearen eta Familiaren Zerbitzua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalerrri eta Mankomunitateak – Harrerarako, Aholkularitza Juridikorako edo/eta Arreta Psikologikorako zerbitzuak dituztenak–, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

■ POLIZIA ARLOA:

Bai azterketak bai datu-taulek honako alderdi honi buruzko informazioa jasotzen dute: Bizkaiko Lurralde Historikoan etxeko indarkeriak biktima bihurtutako zenbat emakume erregistratu dituen Ertzaintzak. Egoeraren adierazle nagusiei buruzko mapen zerrenda bat ere jasotzen da atal horretan.

Informazio-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Segurtasun Sailburuordetza.

■ JUSTIZIA ARLOA:

Bai azterketak bai datu-taulek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: etxeko indarkeriatik hasitako prozesu judizialak, biktimei emandako arreta, abokatu-laguntza eta epaitegiko medikuaren arreta.

Informazio-iturriak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazioko Sailaren Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazioko Sailaren Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea, Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua eta Ofiziozko Txanda (Bizkaia Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua).

Eranskinak kontsultatzeko:

["Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak \(2009\)".](#)

j. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa: Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Behatokiak urtero argitaratzen du “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Foru Baliabideak, udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Harrera, Aholkularitza Juridikoa, Laguntza Psikologikoa, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatua eta Familien Elkarguneak” dokumentua, eta bertan, Bizkaiko erakunde titularrek eskaintako horrelako zerbitzuen eskaintzari buruzko informazio eguneratua jasotzen da.

Bost ataletan –azkenekoa, 2010eko dokumentuan duela gutxi txertatu dena– antolatzen da formalki katalogoa:

- Harrera Baliabideak
- Aholkularitza Juridikoko Baliabideak
- Arreta Psikologikoko Baliabideak
- Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatua emateko Baliabideak
- Familia Elkarguneak

Atal bakoitzaren hasieran gaikako mapa bat dago, arloari dagozkion baliabideek lurraldean zer estaldura duten azaltzen duena.

Atal bakoitza, halaber, bi azpiataletan dago antolatuta, baliabidearen titularra zein den kontuan hartuta: Bizkaiko Foru Aldundia batetik, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak bestetik.

Aholkularitza Juridikoari buruzko atalak, Arreta Psikologikoari buruzkoak, Familietan Esku hartzeko Programa Espezializatuari buruzkoak eta Familia Elkarguneei buruzkoak honako informazio hau dakarte:

- Baliabidearen titularra zer erakunde den (harremanetarako datuak)
- Baliabidearen helburu orokorrak eta garatu beharreko esku hartzeko programa
- Zer kolektibori zuzentzen zaion
- Kudeaketa mota
- Arreta-egunak eta -ordutegia

- Arreta-orduak hileko
- Zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua
- Beste zenbait datu interesgarri (esaterako, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Erabiltzaile-kopurua 2009an, sexuaren arabera sailkatuta
- Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileen kopurua 2009an, tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasan duten kontuan hartuta

Era berean, Harrera-baliabideei buruzko informazio-fitxak honako gai hauek jasotzen ditu:

- Zenbat baliabide dauden
 - Pisu kopurua
 - Plaza kopurua
- Pisu mota
 - Aldi baterako harrera
 - Larrialdiko harrera
- Zerbitzuaren kudeaketa mota
- Babesteko / laguntzeko programa
- Pisuari atxikitako langileak
- Beste zenbait datu interesgarri (esaterako, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- 2009an hartutako pertsonen kopurua, informazioa hauen arabera banatuta:
 - Emakumeak
 - Emakume horien mendeko adingabeak
 - Emakume horien mendeko pertsona helduak

Dokumentuaren amaieran eranskin hau dator: “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”, Etxeko tratu txarrak eta Sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobe emateko erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak egina.

Eranskinak kontsultatzeko:

[“Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatua eta Familia-elkarguneak \(2010\)”](#)

k. Udalerrietako informazio-orria

Behatokiaren sei hilean behingo datu-bilketaren ondorioz (2010ean egin zuen datu-bilketa hori, nobedade gisa, eta urte horren lehen erdian udalerrietako eta mankomunitateetako programen bitartez arreta jaso zuten emakumeen bolumena ezagutzeko jomuga zuen), datuak biltzeko prozesuak berak sorturiko atzeraelikadura-premiei erantzuteko produktu berri bat diseinatu zen.

Oraingo honetan, informazio-metaketa ez dago bideratuta emaitzak sortzera eta jendearen artean hedatzera, entitateetan datu-bilketa sistematizatzeko mekanismoak sustatzera baizik, eta honenbestez, entitateetarako neurri jakin baten garapena lortu nahi da, informazio pertsonalizatua ez ezik, erakundeei Behatokian erregistratutako datuen –zerbitzuen udalerriri edo mankomunitateari buruzkoen– ondaretik datozen adierazle adierazgarrien laburpena emango dien informazioa, hain zuzen ere.

Formula hori interesgarritzat jo da emakumeen aurkako indarkeriaren jakintza, hausnarketa eta/edo azterketa –dagokien entitateek gauzatua– toki-esparruan bultzatzeko. Errealitatea ezagutzeko prozesuari, entitate informatzaileen sarea pizteari eta datuak biltzearen garrantziaren gaineko sentsibilizazioa sustatzeari dagokienez, Behatokiaren jarduna hobetzeko hainbat planteamendurekin lotuta dago ekimen hori.

Neurri hori 2010ean txertatu da programazioari dagokionez, sei hilean behingo prozesuan erakunde informatzaile bakoitzarentzat adierazleen hautaketa bat biltzen duen “Informazio-orri” baten diseinuarekin; adierazle horiek koadroen edota taulen eta grafikoen konbinazio batean irudikatuta daude, eta horiek, era berean, lurralde-esparru bakoitzerako (udalerrria/mankomunitatea eta Lurralde Historikoa) eta jardun-esparru bakoitzerako (gizarte-, polizia- eta justizia-esparrua) erregistraturiko emaitzak kontrastatzea ahalbidetzen dute.

I. *Online* dokumentu-kudeatzailea

Online dokumentu-kudeatzailea datu-base bibliografikoa da, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko dokumentu interesgarriak katalogatzen dituena, lau tipologia tematikotan sailkatuta:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateen berdintasun-planak
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateen emakumeenganako indarkeriaren aurkako programak
- Etxeko tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko ekintza koordinatuko tokiko protokoloak
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko legedia:
 - Legeak
 - Dekretuak
 - Aginduak

Dokumentuen deskribapena egiterakoan, ISBD (International Standard Bibliographic Description) arauen egokitzapen bat egin da, dokumentu bakoitzaren ezaugarri formalen eta kanpo-ezaugarrien analisia egiteko. Izan ere, arau horiek ematen dituzte jarraibideak dokumentuen deskripzioan ezarritako arloak xehatuta ikusteko, eta arlo horiek sarbide-elementuak izango dira, zeinetatik ateratzen baita dokumentu-fondoan dauden erregistroak katalogatzeko eta antolatzeko beharrezkoa den informazio objektiboa.

Informazio-unitateak arlo edo esparru hauetan mailakatzen dira:

- Egilea
- Izenburua
- Dokumentu mota
- Beste erantzukizun-aipamen batzuk
- Edizio-aipamena
- Hizkuntza
- Edizio-lekua
- Argitaletxea
- Edizio-urtea
- Maiztasuna (aldizkako argitalpenak badira)
- Seriea
- Oharrak

- Zenbaki normalizatuak edo sinboloak:
 - ISBN
 - ISSN (aldizkako argitalpenak badira)
 - NIPO
 - DL
 - Sinboloa
- Laburpena
- Deskribatzaileak

Behin erregistroak *online* dokumentu-kudeatzailean sartutakoan, aplikazio informatikoak bi bilaketa-modu ditu:

Bilatzaile arrunta

Testu-kaxan hitz bat edo gehiago idatzita, bilatu nahi ditugun dokumentuak agertuko zaizkigu.

Bilatzaile aurreratua

Testu-kaxak betez, bilaketa zehatzagoa izango da eta eskatutako dokumentua lortzeko aukera gehiago izango ditugu.

Sistemak dokumentua aurkitu, eta fitxa katalogafiko modura aurkezten du. Bertan, bilaketari dagokion dokumentu digitala dago atxikita, baldin eta datu-basean fitxategia badago. Gero, aplikazio egokiak erabiliz bistaratu ahal izango da.

Eranskinak kontsultatzeko:

[Dokumentu-kudeatzailea](#)

m. OVGB/BGIB informazio-buletina

2010ean, Behatokiaren bulletin elektronikoaren lau zenbaki argitaratu dira erakundearen webgunean, zehazki, 16.a martxoan, 17.a ekainean, 18.a irailean eta 19.a abenduan, eta baita erakunde horren kontaktu-sarean hedatu ere.

Buletina, Behatokiaren aldizkako komunikazio-argitalpena, 2005ean abiarazi zen, zehazki, abenduaren 21eko osoko bilkuran berretsitako zenbaki pilotu bat argitaratu eta gero. Emakumeen aurkako indarkeriako egoerei aurre egiteko martxan jarritako mekanismo eta prozeduren gainean sentsibilizatzeko, haien berri emateko eta haiek sustatzeko tresna da OVGB/BGIB bulletina, eta honako helburu hauek ditu:

- Behatokiak lurralde-esparruko informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen rola sendotzea.
- Udalerrri eta mankomunitateekiko harremana finkatzea, baita erreferentziazko beste erakunde batzuekikoa ere.
- Hainbat arlotako profesionalekin eta erakundeekin emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak trukatzeko prozesua faboratzea: egindako praktikak, ikasitako lezioak, ikuspegi berriak, eta abar.
- Behatokiaren jardunei eta horien emaitzen hedapenari buruzko etengabeko komunikaziorako gune bat irekitzea eta mantentzea.
- Beste erakunde eta organo batzuen jardueren, proiektuen eta programen berri ematea, genero-indarkeriaren arloan egiten diren ekintzak ezagutzera emateko
- Emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak ikusgarri egitea eta haren gainean sentsibilizatzea.

Argitalpen hori irakurtzeko interesa duen edonor sar daiteke erakundearen webguneko kontsultara. Bestalde, argitalpen berri bakoitza posta elektronikoz jakinarazten da erakundeetako, entitateetako eta elkarteetako ordezkariak eta banaketa-zerrenda horretan sartzeko eskatu duten partikularrei. Hona hemen zerrenda hori osatzen duten kideak:

- Bizkaiko toki-erakundeen Gizarte Ongizateko eta Berdintasuneko arloetako pertsonal politiko eta teknikoa.
- Behatokiaren Osoko Bilkurako kideak.
- Behatokiaren Adierazleen Lan Taldeko kideak.
- Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizartekintza Batzordeko kideak (VII. eta VIII. agintaldiak).
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakumeen Elkarteak.
- Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko lan egiten duten elkarteak.
- Behatokiko profesional eta erakunde hizketakideak.
- Genero-indarkeriaren azterketarekin eta ikerketarekin lotutako pertsonak, argitalpena interesatzen zaienak.
- Argitalpena jaso nahi duten pertsonak eta erakundeak.

Martxoan argitaratua, 16. zenbakiak “Bizkaian, etxearen eremuan emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria” ikerlana biltzen du; Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak editatu zuen ikerlan hori, eta Behatokiaren 2009ko Jarduera-memoria laburtzen du, komunikabideek genero-indarkeriari emandako tratua agertzeaz gain.

Ekaineko zenbakian, honako hauek egiten dira: lehenik eta behin, Gutxitasun Fisikoa duten Bizkaiko Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailearen (FEKOOR) Berdintasunaren aldeko Emakumeen Batzordearen “*Gai izan gaitezen, Euskal herriko Ezgaitasun eta Genero Zeharkakotasunari buruzko Proposamena*” argitalpenaren berri ematen da, bigarrenik, “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatua. Bizkaiko Lurralde Historikoa (2010)” dokumentuaren edukia laburtzen da, hirugarrenik, Gorren Estatu Konfederazioaren (CNSE) bigarren argitalpenaren barri ematen da, *Situación de las mujeres sordas ante la violencia de género* izenekoa, eta azkenik, “Sarean” atala inauguratzen da; bertan, Bizkaiko Lurralde Historikoan diharduten hainbat eragilek –berdintasunaren eta gizarte-lanaren esparrukoek– beren iritzia ematen dute genero-indarkeriaren aurkako Bizkaiko zerbitzuei eta benetako esperientziei buruzko bi gairi dagokienez; zenbaki horretan, Ermuko Udaleko berdintasun-teknikari Begoña Fernández Alcalde andreaken laguntza izan du argitalpenak.

18. zenbakian, bestalde, honako hauek egiten dira: lehenik, “EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Plana: IX. Legegintzaldiko jarraibideak” plana aurkezten da, bigarrenik, Behatokiaren webgunearen barruan kokatutako “Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Atlas” deritzon tresnan bildutako informazioa laburbiltzen da, hirugarrenik, Patricia Martínez Redondo andreak gauzatutako *“Laguntza-sareetan droga-mendetasuna eta tratu txarrak direla eta izaten den parte-hartzeari buruzko ikerketa”* izeneko argitalpena aipatzen da, eta azkenik, Gernika-Lumoko Udaleko berdintasun-teknikari Ixone Badiola Lekue andreak “Sarean” deritzon atalean buletinaren galderei erantzuten die.

Urtearen amaieran, Buletinaren 19, zenbakiak honako hauek egiten ditu: lehenik eta behin, Berdintasun Ministerioak eta Madrilgo Unibertsitate Konplutenseak 17 Autonomia Erkidegoen eta Hezkuntza Ministerioaren laguntzarekin sustatutako “Berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa nerabezaroan: emaitza nagusiak” azterlana agertzen du, eta bigarrenik, “Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak, 2009” dokumentua aipatzen du, “Esku-hartze psikologikoa genero-indarkeriaren arloko erasotzaileekin: hamarkada batetik gorako esperientzia” mintzaldiaren ildo nagusiak partekatzen ditu irakurlearekin (Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak azaroan antolatutako Nazioarteko Jardunaldian– genero-indarkeriaren erasotzaileei zuzendutako esku-hartze hezigarrien programei buruzkoan– eman zuen Enrique Echeburúa jaunak adierazitako mintzaldia), eta azkenik, eta Bilboko Udalaren Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarrak Saileko Genero-Indarkeria Prebenitzeko eta horretan Esku hartzeko Taldeak bere iritzia ematen digu “Sarean” atalean.

Eranskinak kontsultatzeko:

[Buletina-BGIB 16](#)

[Buletina-BGIB 17](#)

[Buletina-BGIB 18](#)

[Buletina-BGIB 19](#)

n. *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua (2010)*

Behatokiaren egitekoetako bati –parte-hartzeari, bestelako erakundeeetako harremanari eusteari eta bestelako Administrazioen jardunbide egokien jakintzari buruzkoari– plastikotasuna emateko, organoak –2006an *Manual de prácticas, iniciativas y experiencias contra la violencia de género (Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua)* izeneko lana argitaratu zuenak– *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua (2010)* argitaratu zuen; bolumen horrek, era berean, beste dokumentu batean bilduriko iradokizunak jasotzen ditu; dokumentu hori Adierazleen 2009ko Lan Taldeak egin zuen, eta “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” deritzo.

Testu horren zazpigarren gomendioan adierazten denez, beharrezkoa da “batetik, etxean emakumeen aurkako tratu txarreko egoerak prebenitzeko eta artatzeko esparruko jardunbide egokiei buruzko txostenak eta azterlanak egitea sustatzea, eta bestetik, mota horretako lanak BGIbren webgunearen bitartez hedatzea”.

Halaber, Behatokiaren 2009-2010eko Lan Planean jasotako helburu eta jarduera berrien artean, Jardunbide Egokien Txosten bat egitea zehazten da 2010erako.

Ondorioz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako ekimenen bilduma bat eskaintzen du Eskuliburuak; adierazitako ekimen horiek erakunde publikoek, entitate pribatuek eta emakumeenganako indarkeriaren eta horiengan izandako ondorioen aurkako borrokan berdintasunaren alde diharduten elkarteek eta organizazioek erkidegotik kanpo, nazioartean, erkidegoetan, estatuan, foru-esparruan eta toki-esparruan garatu dituzte, eta honako gai hauei buruzkoak dira:

I. Prebentzioa:

- o Hezkuntza
- o Sentsibilizazioa
- o Komunikabideak eta publizitatea

II. Arreta:

- o Arreta-zerbitzuak
- o Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean profesionalei emandako prestakuntza
- o Erakunde arteko koordinazioa

Jardunbide egokiak hautatzerakoan, hainbat faktore hartu ziren kontuan, hala nola esperientziaren kalitate aitzindaria, aplikazio-denboran izandako finkapena, alderdi berritzaileen tratamendua, eredia beste erkidegoetara esportatu izana edo trakzio-izaera, eta gizarte-proiektzioa, besteak beste; horretarako, guztira 35 erakunderekin komunikazio-loturak ezarri ziren, % 86ko erantzun-indizea lortuz, eta horrek, era berean, 34 ekimen biltzen zituen azken dokumentu bat eratzea ahalbidetu zuen (hainbat erakundek ekimen batean baino gehiagotan parte hartzen dute).

Dokumentuaren maketazioan, osaera-ideia informazio argi, eskuragarri eta ordenatua adieraztean oinarritu zen. Azalaren osaeraren jomuga zerbitzuen eskuragarritasuna eta horietarako sarbide orokorra transmititzea zen, eta forma pertsonalizatuetaarako eta kolore lauetaarako joeraren bitartez, hurbileko, eguneroko zerbitzu transmititu nahi zen, ezagutzen erraza, egunerokotasunarekin loturiko ikonoen erabilera alde batera utzi gabe. Elementuen artean txertatutako puntu lilak bi esanahi zituen: batetik, estetikoak –gainerako formen kontrapuntuzkoa–, eta bestetik, kontzeptuzkoa, emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespenaren sinbolo gisa.

Azaroaren 26ko osoko bilkuran aurkeztu zen dokumentua, eta 2010eko abenduan Behatokiaren webgunean argitaratu zen.

Eranskinak kontsultatzeko:

[Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua \(2010\)](#)

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
JARDUEREN MEMORIA 2010